



ATE IREKIEN JARDUNALDIA ZUZENDARITZA 2024-03-12

Nori zuzenduak?

Graduko **Zuzendaritza** ikasketak **Musikenen** egiteko interesa duten musika **ikasleei** zuzendua.

Sarrera probak 2024-2025 edo 2025-2026 ikasturteetan egingo dituztenen izen-ematea onartuko da. Sarrera proba horietara ikasleak prestatzeko asmoa duten **irakasleentzat** ere irekita egongo da.

Jardunaldia aurrez aurre egingo da. Parte hartu ahal izateko **aurrez erreserba** egin behar da **izena emateko orria** betez. Epea **2024ko martxoaren 5ean** amaituko da.

Parte-hartzaileak jardunaldira **laguntzaileekin** joatekoak badira, horien kopurua adierazi beharko dute izena emateko formularioan.

Jardunaldiaren helburua

Zuzendaritza Gradua egin nahi duten ikasleei informazioa eta orientazioa ematea: sarrera proben egitura, eskatzen den maila eta ikasketa horietara sartzeko erreperitorio egokia .

Non egingo den

Musikene, Euskal Herriko Goi-Mailako Musika Ikastegia
Europa Plaza, 2. 20018 Donostia-San Sebastián
Telefonoa: 00 34 943.023.750
E-maila: info@musikene.eus
<https://goo.gl/maps/jtNTDighrRG2>

Jardunaldiaren egitura

Basilio ASTÚLEZ eta Jon MALAXETXEBARRIA

9:00 Bilera informatiboa, bertan azalduko dira **Musikeneren** nondik norakoak, Graduko ikasketa planak, osatzen duten irakasgaiak eta irakasten dituzten irakasleak, **Musikene**k eskaintzen dituen aukera eta proiektuak, sarrera proben egitura eta zehaztasunak, ikasketetan sartzeko betebeharrak eta epeak. Ikastegiari bisita gidatua ere egingo zaio.

10:00-12:00 Koru zuzendaritza eskola praktikoari bisita

12:00-12:30 Koru zuzendaritza eskola teorikoari bisita

12:30-13:30 Banakako elkarrizketak Koru zuzendaritza espezialitateko irakaslearekin

13:30-14:30 Banakako elkarrizketak Orkestra zuzendaritza espezialitateko irakaslearekin

16:00-17:00 Orkestra zuzendaritza eskola teorikoari bisita.

17:00-18:30 Orkestra zuzendaritza eskola praktikoari bisita

18:30 Ate Irekien Jardunaldiaren amaiera.

Zuzendaritza jardunaldiari buruzko informazio akademiko espezifiko gehiago jasotzeko jarri harremanetan Josune Otxotorena Analsia, Konposizioa, Zuzendaritza eta Teknologia Departamentuko buruarekin:
dpto.composiciondireccion@musikene.net